

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

5501

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 7koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2021. urtean ezar ditzaketen tarifak eguneratzen dituena.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan (martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuaren bidez aldatu zen) ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehaztu dira. Ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkieke eginkizunok.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikulua aurreikusten duenez, emakidadunek egin dezaketen ikuskapen bakoitzari dagozkion tarifak Dekretu hori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoak izango dira, eta honako hauen arabera eguneratuko dira: «ibilgailuen azterketaren alorrean arauak izan duten bilakaeraren, aurrerapen teknologikoaren eta, hala behar bada, kontsumoko prezioen indizeak izan dituen aldaketan arabera».

Zerbitzuaren emakidadunek gaur egun Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren arloan aplikatu ditzaketen tarifak Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduan jasotakoak dira. Agindu horren 8. artikulua honako hau aurreikusten du:

«Ez bada horri buruzko agindurik ematen behar den urtean, orain eguneratutako tarifak urtero eguneratuko dira KPIaren gorabeheren arabera eta urtetik urterako urriko indizea oinarritzat hartuta. Eguneratutako tarifak indarrean jarriko dira urtarrilaren 1etik aurrera».

Euskal Estatistika Erakundearen datuen arabera, Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) -%0,8 aldatu da estatu mailan 2020ko urrian.

Bestalde, aipatutako 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren azken xedapenetako lehenengoak honako hau aurreikusten du: «Industria-administrazioaren arloko zuzendari eskudunari ahalmena ematen zaio zernahi arazo ebazteko agindu hau eta aplikatu beharreko gainerako arauak interpretatu behar direnean, baita behar diren garapen-xedapenak emateko ere».

Azaldutakoaren esparruan, eta azaldutako zuzenbideko oinarriak, aipatutako aginduak eta aplikazio orokorreko gainerakoak ikusita, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuaren 13. artikulua zuzendaritza horri esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren I., II. eta III. eranskinetan argitaratutako tarifak eguneratzea; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, beraz, ebazpen honetako I., II. eta III. eranskinetan zerrendatutako tarifak aplikatuko dira.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekursoa jar daiteke Industriako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen hau

2020ko abenduaren 23a, asteazkena

jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 7a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.

2020ko abenduaren 23a, asteazkena

I. ERANSKINA

ALDIZKAKO IKUSKAPENENGATIKO TARIFAK

Ibilgailu mota	Dieselerako tarifa		Gasolinarako, hibridoetarako eta gainerakoetarako tarifa		Elektrikoetarako tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)
	L	20,34	24,61	20,34	24,61	17,86
L	L ibilgailuak, behean aipatutakoak izan ezik.		38,84	46,99	35,71	43,21
	L5e-B, L6e-B, L7e-A2, L7e-B2 eta L7e-C (kuadriziklo kabinadunak eta antzekoak)		38,84	46,99	35,71	43,21
M	M1	38,84	46,99	37,20	45,01	43,21
	M2, M3	56,54	68,42	55,55	67,22	65,42
N	N1	38,84	46,99	37,20	45,01	43,21
	N2, N3	56,54	68,42	55,55	67,22	65,42
O		34,72	42,01	0,00	0,00	0,00
T eta nekazaritzako beste batzuk		31,19	37,74	0,00	0,00	0,00
Obra eta zerbitzueterako ibilgailu bereziak eta makina autopropulsatuak		56,54	68,42	55,55	67,22	65,42
Zirkui-makinatarako edo aisialdiko azoka ibiltarietarako ibilgailu egokituak eta transformazio-estazio mugikorrak.		56,54	68,42	55,55	67,22	65,42

Oharra: Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren Erregistroan ibilgailuen azterketa teknikoaren emaitza idazteagatiko tasak gehituko zaizkie tarifa horiei, ikuskapen hori egiteko arauzko betebeharrak dagoen kasuetan.

II. ERANSKINA

ERREFORMENGATIKO TARIFAK

Eranskin honetan erreformaren ondoriozko ikuskapen teknikorako adierazitako tarifari III. eranskinean adierazitako izapideen ondoriozko tarifa ere aplikatuko zaio «erreforma-kode» bakoitzeko, Erreformen Eskuliburuan (indarrekoan, 866/2010 Errege Dekretuan gaur egun) ezarritakoaren arabera.

Erreformatan, ez bada aldatzen ibilgailuaren masa edo ardatzen banaketa, pisatze-tarifa ere aplikatuko da, azterketa teknikoagatik dagokion tarifaz gain. Ibilgailuaren pisatze-tarifa, hala badagokio, behin baino ez da aplikatuko, nahiz eta aldi bereko erreforma batzuek bestelakorik eskatu.

Izapidetzeko proiektu bat aurkeztea ezinbesteko duten erreformei proiektua berrikusteko tarifa gehituko zaie.

	Dieselerako tarifa		Gasolinarako, hibridoetarako eta gainerakoetarako tarifa		Elektrikoetarako tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)
Erreformagatiko tarifa	39,68	48,01	39,68	48,01	39,68	48,01
Proiektua berrikustea	19,84	24,01	19,84	24,01	19,84	24,01

III. ERANSKINA

BESTELAKO IKUSKAPEN ETA ZERBITZUENGATIKO TARIFAK

	Tarifa	
	Prezioa (€)	Prezioa % 21eko BEZa barne (€)
Izapidetzea	10,66	12,90
Ibilgailuak pisatzea	13,56	16,41
Matrikulatu aurretiko ikuskapena	36,76	44,48
Eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren azterketa espezifikoa	29,76	36,01
Ikuskapen partziala	Behar den aldizkako ikuskapenaren % 50, gehienez % 100	
Joan-etorrien gastuak (kilometroko)	0,56	0,68
Lekualdatzeagatiko gutxieneko fakturazioa	11,25	13,61

OHARRAK

1.– Matrikulatu aurretiko ikuskapenerako adierazitako tarifari gehituko zaio: ibilgailuaren kategoriaren arabera dagokion aldizkako ikuskapenaren tarifa, eta, hala badagokio, erreformak erregularizatzeko zein ibilgailua pisatzeko izapideengatikoa ere.

2.– Eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa aplikatuko zaie garraio mota horretan alta emanda dauden M2 eta M3 kategorietako ibilgailuei, eta aldizkako ikuskapenaren tarifari gehituko zaio.

3.– Eskola-garraioaren tarifa bera aplikatuko zaie eskola-garraioko alta-erreformei, eta erreforma-tarifari gehituko zaio.

4.– Ibilgailu arinei, taxiei batez ere, ez zaie eskola-garraioaren tarifa aplikatuko baldin eta taxien eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoak badira, eta ibilgailuaren aldizkako ikuskapenarekin batera egiten badira; aitzitik, aplikatu egingo da eskola-garraioaren ikuskapen espezifikoa baino egiten ez bada.